

Asisko gutuna

2012ko otsaila. 4. printzipioa. Bidea elkarrekin egin,

anaitasunez bizi

40. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

Sare honetan esku hartzen dutenak, espiritualitateko lau printzipioren esperientzia partekatzen saiatzen dira beren eguneroko bizitzan. Printzipio horiek badukete zer esanik orientabidea galdu dugun garaiotan.

Jarraiko hauek dira lau printzipio horiek: 1. printzipioa: Egutero, Jainkoarekiko harreman pertsonala landu; 2. printzipioa: Eguneroko bizitza,

barnerantz: apaltasuna; 3. printzipioa: Eguneroko bizitza, kanporantz: solidaritatea; 4. printzipioa: Bide hau elkarrekin egin, senidetasunean bizi.

Hil honetan, laugarren printzipioaz egingo dugu gogoeta, "Ez beldur izan" dugularik Gutuneko gai nagusia. Konfiantza eta beldurra aurrez aurre dabilta gure senidetasuna bizitzeko moduan.

Gogoetarako gaia

Ez izan beldur

Beldurra da munduari eragiten dion indarririk handienetako bat. Beldurra geroari, norberaren sufrimenduari, gureenari, ziurgabetasun ekonomikoari, porrotari, bakardadeari, heriotzari. Indar asko galtzen dugu horretatik blindatzen eta babesten, errealitatean geure bizitza kontrolatzeko eta sufrimendua eta heriotza saihesteko ahalbiderik bagenu bezala.

Beldurrak harresiak altxatzen ditu, errugabeak hilarazten, gerrak antolatzen. Beldurrak alendu egiten gaitu ezberdinagandik, ezezagunagandik eta harrera ona eta solidaritatea... galarazi egiten dizkigu. Beldurrak urrundu egiten gaitu desio dugun senidetasunetik. Are eragotzi egiten digu geure burua maite dugunari ematea, oparitzen zaigun bizitzaz gozatzea. Eta zenbat eta gauza gehiago dugun, beldur gehiago sentitzen dugu.

Ebanjelioak sarritan animatzen gaitu beldurrik ez izatera: hurra jaiotzean artzainei esanean, Jainkoaren maitasun amaigabearen agintzarian, maisuaren heriotzaren ondoren apostoluen ulertu ezinean... Jesusek behin eta berriro esaten digu: ez beldurtu, ez izan beldur. Jainkoaren presentziak eta maitasunak liberatu egiten gaitu beldurretik. Hori ez da munduari inozoki begiratzea: ez du ukatzen zailtasuna eta sufrimendua. Konfiantza edukitzera gonbidatzen gaitu, geure beldur guztiak Jainkoaren eskuetan uztera, Jainkoak babesa ematen baitigu penak eta guzti.

Ondo legoke geure bizitza sinpleagoa egitea, egunerokoa bizitzea eta konfiantza edukitzea. Joan XXIII.ak esaten digun bezala: "Gaurkoz bakarrik ez dut beldurrik izango. Era berezian ez dut beldurrik izango ederra denaz gozatzeko eta ontasunean sinesteko".

Ebanjelioko pasartea: Lk 12, 22-31

Ondoren bere ikasleei esan zien Jesusek: «Horregatik diotsuet: Ez kezkatu bizitzeko zer jango, edota gorputza zerez jantziko. Izan ere, bizia janaria baino gehiago da, eta gorputza jantzia baino gehiago. Begira beleei: ez dute ereiten, ez uztarik biltzen; ez dute bihitegirik, ez mandiorik; hala ere, Jainkoak janaritzen ditu. Zenbat gehiago ez ote duzue balio zuek hegaztiekin baino! Askok arduratu arren, zuetako nork luza lezake bizitza apurtxo bat ere? Beraz, gauzarik txikiena ere ezin baduzue, zertan kezkatu gainerakoaz? Begira nola hazten diren loreak: ez dira

lanean penatzen, ez dute iruten; baina, egia esan, Salomon bera ere, bere ospe guztian, ez zen janzen horietako baten pare. Beraz, gaur belardian dagoen eta bihar sutan erreko den belarra Jainkoak horrela janzen badu, zenbat gehiago ez ote zaituzte jantziko zuek, sinesmen gutxikook?

«Zuek ez ibili larri jan-edanaren bila. Fedegabeak arduratu ohi dira horiez guztiez; baina zuen Aitak badaki horren beharra duzuen. Ardura zaitetze, ordea, Jainkoaren erregetzaz, eta beste hori gehigarritzat emango dizue Jainkoak.

Frantziskotar espiritualtasuna

Frantziskok izan zuen beldurraren berri: beldurra lepradunei, bere aitaren haserreari, kontuan hartua ez izateari, besteak baino gutxiago izateari, mesprezaturia izateari... Beldur horiei guk ohi dugun antzera erantzun zien: lepradunengandik ihes eginez, bere aitaren iratik haitzulo batean gordez, nabarmendu bila ibiliz, izan ez zena izatea amestuz, Asisko emakume konkorduna bezala gelditzeko mehatxuaz izututa geldituz, gerrara joanez... Frantziskok probatu zuen nolako indarra duten beldurrek, gainditzen gaituztenean, guri libertatea kentzeko eta beste etsy gisa begiratzeko.

Frantziskok izan zuen beldurraren berri, baina gehiago konfiantzaren eta libertatearen berri. Jainkoaren aurkikuntza egin zuen, bere burua Harengan uzteko eta hura aldarrikatzeko: "Zu zara segurantz, Zu zara zaindari eta defendatzailea, Zu zara sendotasuna, Zu zara gure itzaropena". Jesukristorekin aurkitu zuen pobre izateak libre egiten duela, eta aitzitik ondasunen jabe dena haiek galtzeko beldurrez bizi dela eta arma beharrez dela haiek defenditzeko. Jesukristorekin ulertu zuen, denen senide izatea hautatuz ez zuela inor etsy izango, inor ez zela berak mehatxatua sentituko eta denen aurrean konfiantzaz egon ahalko zuela. Beldurrek gaindituak ez izateko, ez da beharrezko indartsu izatea; nahikoa da, besterik gabe, senide eta txiki izateko bihotza edukitzea, konfiantzaz beteriko bihotza.

Otoitza: Beldur denak...

Beldur denak...
ez dezala askatu
amaren eskua;
erortzeko beldur dena
bego eserita;
eskalatzeko beldur dena
bego babes txabolan;
okerreko bidea hartzeko beldur dena
geldi bedi etxean...
Baina hori guztia egiten duenak

jada ezingo du gizaki izan,
gizakiak berezkoa baitu
arriskatzea.
Esan ahalko du maite duela,
baina ez daki maitatzen,
zeren eta maitatzea
besteen alde arriskatzeko gauza izatea baita.

Julían Ríos
"Vientos de libertad"

Gutuneko azken hitzak

Nire beldurrek badute existentzia, hor daude nigan eta baldintzapetu egiten naute; baina ni eta nor bakoitza geure beldurra baino gehiago gara. Ez gaude beldurraren eraginak soilik bultzatuak izatera aurrez behartuak. Badugu beste aukerarik.

2012ko martxoko eguneroko ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen dauzkate martxoko erreferentzia guztiak:

1 Mt 7,7-12	8 Lk 16,19-31	15 Lk 11,14-23	22 Jn 5,31-47	29 Jn 8,51-59
2 Mt 5,20-26	9 Mt 21,33-43.45-46	16 Mk 12,28-34	23 Jn 7,1-2.10.25-30	30 Jn 10,31-42
3 Mt 5,43-48	10 Lk 15,1-3.11-24 ^a	17 Lk 18,9-14	24 Jn 7,40-53	31 Jn 11,45-57
4 Mc 9,2-10	11 Jn 2,13-25	18 Jn 3,14-21	25 Jn 12,20-33	
5 Lk 6,36-38	12 Lk 4,24-30	19 Mt 1,16.18-21.24 ^a	26 Lk 1,26-38	
6 Mt 23,1-12	13 Mt 18,21-35	20 Jn 5,1-3.5-16	27 Jn 8,21-30	
7 Mt 20,17-28	14 Mt 5,17-19	21 Jn 5,17-30	28 Jn 8,31-42	

Geure web gunea bisitatu

www.asissarea.org



Asis Sarea

646 21 48 96

Asisko Gutunaz, bakarka nahiz taldean lan egiteko iradokizunak

Asisko gutuna

2012ko otsaila. 4. printzipioa. Bidea elkarrekin egin.

anaitasunez bizi

40. zenbakia

Asis Sarearen laugarren printzipiora gatoz berriro: “Bide hau elkarrekin egin, senidetasunean bizi”. Hau da gogoetarako gaia: “Ez izan beldur”. Konfiantzatik bakarrik, ez beldurretik, bizi daiteke senidetasuna. Jesusek esaten digu: “Ez izan beldur”. Geure beldur eta zalantzak aztertuko ditugu, geure burua Hari konfiantzan emateko.

Ez izan beldur

Hiztegiaren arabera beldurra zera da: desiratzen dugunaren kontrako zerbait gertatuko ote zaigun susmo txar edo irudipena. Gaur egunean, nondik sortzen dira zure beldurrak? Zein egoeratik duzu zeure desioak beteko ez diren beldurra?

Familiagatik, lanagatik, lagunengatik...? Bertan behera datorren gizarteagatik, nahiz eta beste aldetik aldaketan itxaropen-izpiren bat agertzen dela ikusten dugun? Elizagatik, kristau elkarreagatik, hemen ere gure desioak... betetzen ez direlako? Eta norbere baitara begira, zeri diot beldur? Maitatua ez izateari, nigandik espero denari ez erantzuteari, osasuna galtzeari, edozer gauzagatik mehatxatua sentitzen naizenean ditudan erreakzioei...

Nola jokaten dut beldur horien aurrean? Harresiak altxatuz? Besteengandik aldentuta bakarrik geldituz?

Zerk oztopatzen dit berria den hartara irekita bizitzea? Beti dago aurki dezakegun zerbait berria, geure baitan eta besteengan.

Edo agian aurkitu dut, Jainkoaren maitasunera neure burua irekiz bakarrik gaindi ditzakedala neure beldurrak?

Hil honetan proposatzen dizut, beldurrak Jainkoaren eskuetan uzteko ariketa egunero egitea, Harengandik bakarrik desager baitaitezke poliki-poliki.

“Ardura zaitezte Jainkoaren erregetzaz, eta beste hori gehigarritzat emango dizue Jainkoak”

Lukasen Ebanjelioko testu hau irakurtzean pentsa dezakegu: “Erraza duk, bada! Familia bat, etorkizun bat... daukadanean, nola ibiliko naiz konfiantzatan?”

Jesusek ez digu eskatzen lan egiteari uzteko, ez eta familian, gizartean, munduan, Elizan... ditugun erantzukizunei heldu gabe gelditzeko. Geure irrika eta jorana gauza horietan ez jartzeko baizik; lan egin behar dugula bai, geure misioa bete behar dugula bai, baina geure konfiantza Berarengan jarrita, Bera gurekin dagoelako, zer behar dugun badakielako eta ematen digulako, askotan ulertzen ez badugu ere.

Hainbeste gauzaren kezkatzen ematen dugu bizitza, eta azkenean konturatzen gara ez zirela hain garrantzitsuak eta ez zutela hainbeste kezka merezi. Zeintzuk izan dira kezka horiek zeure bizitzan?

Jesusek eskatzen digu ardura gaitezela Jainkoaren erregetzaz. Txiki eta are hutsal egingo dugu geure burua belarrak eta txoriek bezala; eta konfiantza jarriko dugu Harengan, Berari gu gidatzen utziz behar duguna eman diezagun, eta guk egunegun ematen dugunaren ezagutza izan dezagun.

Frantziskotar espiritualitatea

Frantzisko doneak ere izan zituen bere beldurrak, ez zen beldurrik gabeko izan, eta haien aurrean gutako edozeinek bezalaxe erreakzionatu zuen. Baina jakitez aurkitu zuen, beldur horiek esklabotzan bizitzera eramaten zutela, libertatea kentzen ziotela.

Frantziskok Jainkoarekiko harremanean jakitez aurkitu zuen, Harengan konfiantza jarritz bakarrik zela libre eta joaten zitzaizkiola beldurrak.

Beldurrei aurre egiteko moduan, zertan aurkitzen duzu zeure burua antzeko eta ezberdin Frantziskorekin.

Senidetasunean bizitzeko, fedean senide izateko, albora utzi behar dugu protagonismoa galtzeko beldurra, geure sesioak ez betetzeko beldurra; ikasi egin behar dugu besteaz axolatzen, harengana aurreiritzirik gabe hurbiltzen, hari arerio bezala ez baina senide bezala begiratzen.

Senidetasuna egiteko, ikasi egin behar dugu Frantzisko bezala txiki eta apal izaten, Jainkoagan konfiantza edukitzen; eta orduan sortuko da guregan senideengana askatasunez irekitzeko gai den kemena eta adorea.

Beldur denak...

Egin otoitz testuaz baliatuz, eta eskatu Jaunari egin zaitzala egunetik egunera maitatzeko gaitasun handiagoko, horrela beldurrik gabe dena besteen alde arriskatzeko gauza izateko.